EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Irraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

ale berezia

Kaleko borroka da bide bakarra

Aski da! Errepresiorik ez

Kaleko borroka da bide bakarra

Euskal preso eta iheslariak etxera!

Aski da! Errepresiorik ez!

Pedro Sanchezen gobernuak ez ikusiarena egiten jarraitzen du euskal presoek eta beren senitarteko eta lagunek jasaten duten egoera larriaren aurrean. Gobernura iritsi zenetik, bere politika hitz eta keinu epeletan oinarritu da, diskurtso aurrerakoixeagoa irudikatu nahian, funtsean ezer ez aldatzeko. Horrela izan da hezkuntzan eta osasungintzan, murrizketa sozialetan, errefuxiatuen aferan, memoria historikoan, lan erreformetan, pentsioetan, Catalunyako auzian (egindako adierazpenek eta Bartzelonan Ministroen Kontseilua egiteko probokazioak erakusten duten bezala)... eta horrela da, baita ere, espetxe politiketan.

Euskal presoak ez daude PSOEren ez EAJren agendetan. Egun 260 preso daude Estatu espainiar eta frantseseko kartzeletan. 150 baino gehiago etxetik 600km baino gehiagora dago. Ekainetik egon diren lekualdatzeek zenbait gerturatze ekarri dituzte, baina ez dira inolaz ere nahikoa presoek eta beren senitartekoek jasaten duten eskubideen zapalkuntza sistematikoari erantzuteko. Ez dago inolako gradu bilakaerarik eta kondena osoa lehen graduan betetzen dute. Ibili beharreko kilometro izugarriez, istripuez edo jasandako erasoez gain, 113 adingabeko daude beren ama, aita edota biak preso dituztenak. Horietako hiru kartzelan bizi dira amaren alboan.

Estatu frantsesak azken hilabeteetan hainbat preso gerturatu ditu, baina egin ditu beste lekualdatze batzuk ere Euskal Herritik 900km baino gehiagora, eta Estatu espainiarrari presoak entregatu dizkio, kondenak biderkatuz. Estatu espainiarrean, Pedro Sánchezek hasiera batean egin zituen adierazpenak praktikan ezerezean geratu dira. Grande-Marlaska ministroak oso argi utzi zuen: ez dira lekualdatze kolektiboak egongo. Euskal presoek duten izaera politikoa ukatzeko premisatik abiatzen da. Aldiz, zigortzeko eta umiliatzeko ahal duten guztia egiteko izan denean bai, orduan kolektiboki tratatu dituzte.

EAJk jarrera ziniko berbera izaten jarraitzen du. Abenduan Urkullu lehendakariak EHBilduko buruzagiei leporatu zien aurrekontuetako itunetik urruntzeagatik, "nahiago dutela pankartaren atzean egoten jarraitu". Mespretxu hori beren politika kapitalisten aurka mobilizatu garen milioika pertsonen aurka zegoen zuzeduta, argi utzi baitugu ez ditugula onartuko. Presoen aldeko manifestazio masibo bat dagoenean, politikari burges horiek instituzioetako ordezkari gisa ateratzeko aprobetxatzen dute, eta sinestarazi nahi digute eraginkorrak direla beren adierazpenak eta gobernu zentralarekin eginiko bilerak. Mobilizazioa mespretxatzen dute, baina ez dira egoera larri honetaz akordatzen manifestazioen ondoren ez bada. Ez da ahaztu behar EAJk orain dela 30 urte PSOErekin batera dispertsio politikak martxan jarri eta txalotu zituela. Arzallusek berak, esaterako, azpimarratzen zuen dispertsioak ez dituela giza eskubideak urratzen.

Noski. Hain zuzen ere, egun ditugun eskubide guztiak kaleko borrokaren bidez lortu ditugu, pankarten atzean eta hori da presoak etxera ekartzeko bide bakarra. Dispertsio eta errepresio politiken aurkako borroka 78ko erregimenaren, murrizketa eta austeritatearen eta autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka bera da. Egun argi eta garbi ikus daiteke hori Euskal Herrian eta Catalunyan. Soilik gazteriaren eta langile klasearen borroka iraultzailearekin azpiratuko dugu zapalkuntza oroekin amaitzeko borrokatzen dugunok sistematikoki erreprimitzen gaituen sistema hau.

78ko erregimenarekin hautsi!

Gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatu!

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

koa berrezartzeko. Gaur inoiz baino argiago daude, buruzagi hauen kapitulazio ikaragarrien ondorioak.

Muturreko eskuinaren gorakada Andaluzian: Erreakzioa alternatiba iraultzaile batekin borrokatu behar da!

Abenduaren 2ko Andaluziako hauteskundeak lurrikara politikoa izan dira. Hasteko, 36 urtetan lehen aldiz eskuinaren bozkek ehunekotan PSOE eta Adelante Andalucíarenak baino gehiago direlako. Baina batez ere VOX 12 eserlekurekin sartu delako parlamentuan.

Hauteskunde emaitza horiek faktore ezberdinengatik azaltzen dira. Batetik, krisi kapitalistaren sakontasunagatik, eragiten ari den langabezia, prekarietate, murrizketa sozial andana eta errepresioagatik. Bestetik, PSOEren politika dago. Funtsezko auzietan, PSOEko buruzagiak banku eta multinazional handien menpera aritu dira, gobernuan zeudenean euren poltsikoak betez, murrizketak egiten zituzten bitartean hezkuntzan, osasungintzan edota menpekotasunean. Men egin diote nazionalismo espaiñolistaren oldarraldiari herri katalanaren erabakitzeko eskubidearen inguruan eta diktadura frankistatik zuzenean datorren Estatu aparatuaren neurri errepresiboak babestu dituzte. Ardura handia dute gertaturikoan.

PSOEren hondoratzearen alboan, Unidos Podemosek jasotako kolpea dago. Podemoseko buruzagiek mobilizazio soziala bertan behera uztean tematzeak eta PSOErekin koalizio gobernura iristeko agertu duten grinak akats larria direla ikusi da. Pablo Iglesiasek babes mordoa jaso zuen 78ko erregimenaren, monarkiaren eta sistema kapitalistaren aurka argi hitz egiten zuenean, eta mobilizazio sozial handien indarrean babesten zenean. Baina orain iraganeko akats berberak errepikatzen dituzte. Unidos Podemos instituzioetara orientatu da erabat, eta erabat ahaztu du kaleko borroka izan zela horietara eraman zuena.

Andaluziako hauteskundeek mehatxu serioa jarri dute mahai gainean, bihar Estatu mailan gertatu daitekeena. Akatsa da "indar konstituzionalisten aliantzaz" hitz egitea muturreko eskuina gelditzeko PSOEk egiten duen moduan, edo EAJ edo politikari katalan burgesekin "aliantza parlamentario antifaxistaz" hitz egitea, Pablo Iglesiasek egiten duen moduan.

EAJk oso argi utzi du 78ko erregimena hil ala bizi defendatzen duen alderdia dela. Bere politikak patronalaren alde egitean eta langile klasea erasotzean oinarritzen dira, pribatizatuz, enpresak erortzen utziz, diru publikoa bankari eta enpresari handiei oparituz, eta murrizketa sozialak eginez. Euskal ustelkeriaren eta errepresioaren alderdia da. Gobernutik bota behar dira, Euskal Herriko kaleak bete dituzten pentsionisten, mugimendu feministaren, ikasleen eta langileen mobilizazio masiboen indarrarekin. Borrokak elkartu, kalean planteatu ditugun aldarrikapenak egiazko egiteko.

Ezker Iraultzailetik Fronte Bakarra osatzeko deia egiten diegu ezkerreko erakunde borrokalariei, langile klase guztiari eta gazteriari, eskuina eta faxismoa garaitzeko, benetan eraginkorrak den bidean: masen borroka, greba orokorra eta kapitalismoarekin hautsiko duen alternatiba sozialista iraultzailearen defentsa.

78ko erregimenarekin hautsi!

Gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatu!

40 urte bete dira 1978ko Konstituzioa indarrean jarri zenetik, hain zuzen ere, bertatik jaio zen erregimena hondoa jota dagoen testuinguru batean. Sistema kapitalistaren krisi orokorrak eta inposatu dizkiguten austeritate eta eskubideen murrizketa politikek biluzik utzi dute kapital handiaren diktadura eta hori sostengatzen duen Estatu aparatua, epaile atzerakoiez, torturatzaileez eta faxistez betea.

Frankismoaren aurkako borrokaren ikasgaiek garrantzia ikaragarria dute gaur egun. Urte horietan gertatutakoa urrun da oso demokrazia eta berradiskidetzearen diskurtso faltsutik. Diktadorearen heriotzak 75ean egoera aurre iraultzaile bat ireki zuen. Lan indarraren ia %90 grebetan parte hartzen ari zen. 1976ko martxoko Gasteizko greba orokor handia, langile kontseiluen zinezko muinak ziren komisio ordezkagarriek bultzatua, egoera honen erakusle argia izan zen.

Estatu aparatu frankistak, hilzorian errepresioa handitu zuen, batez ere Euskal Herrian, borroka urrunen iritsi baitzen. Baina ez ziren gai beldurra galdu zuen langile klasearen oldarraldia gelditzeko. Burgesiak, egoera honen aurrean benetan izuturik, langile klaseko masa alderdien buruzagi erreformistengana jo zuen, Felipe Gonzalez (PSOE) eta Santiago Carrillo (PCE) buruan zirela. Beren egin-kizuna kaleak hustutzea izan zen, egonkortasun politiko eta ekonomi-

3. ORRIAN JARRAITZEN DU

Antolatu zaitez
EZKER IRAULTZAILEAn
Euskal Herria Sozialista baten alde borrokatzeko